

## **EROSKI-K FRANKIZIA ERAKO BESTE SUPERMERKATU BAT IREKI DU GASTEIZEN**

- **Frankizia erako denda berriak elikagai zerbitzu osoa emango die kontsumitzaileei fabrikatzaileen markekin, kalitatezko marka propioarekin eta freskoetan duen lidergoarekin**
- **EROSKI-k aurreko urteetako frankizien irekiera erritmoari eutsi dio. 307 inaugurazio baino gehiago egin ditu joan deneko bost urtean, eta 628 supermerkatu frankiziatu baino gehiago ditu urtea bukatuz geroztik**

**Gasteiz, 2024ko maiatzaren 23a.-** [EROSKI](#) frankizia erako beste supermerkatu bat inauguratu du Sofia Erregina etorbideko 1.an. EROSKI/City izenekoa da saltokia, eta, bezeroarenganako arreta pertsonalagoa eman ez ezik, tokian tokiko produktuen eta sasoiko elikagai freskoen alde apustu indartsua egingo du; horretaz gainera, elikagai osasungarriak sustatuko ditu, eta dirua aurrezteko modu berriak eskainiko ditu eguneroko erosketetan. Saltokiak sei langile izango ditu.

Supermerkatuak produktu sorta zabala eskainiko du, ekoizle liderren markakoa, marka propioa eta tokiko ekoizleena, eta 300 metro koadro ditu. Horretaz gainera, elikagai freskoen eskaintza zabala du; bereziki, sasoiari sasoiko eta tokiko frutena eta barazkia, eta erreferentzia osasungarriek garrantzia hartuko dute, produktu ekologikoen sorta zabalagoa izango baita. Saltokiak, era berean, ogi eta opil egin berriak izango ditu, bezeroei freskotasunik handiena bermatzeko.

Hilero-hilero, eskaintzak eta sustapen kanpainak izango dira, kontsumitzaileei aurrezten laguntzeko. Aurrezpen horretan, EROSKI Cluba da erakusgarri behinena. Bezero-bazkideak markarekin fidelizatzeko programa da, eta oso sustapen erakargarriak ditu, baita Travel Club txartelak lehendik zituen abantaila guztiak ere. 181.500 kontsumitzaile baino gehiago dira kooperatibako Bezero bazkideak, eta EROSKI Cluben abantailak ikusten ari dira dagoeneko Araban.

### **65 frankizia inauguratu ditu 2023an**

---

#### **EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
PATRICIA MARTÍN SANCHIDRIÁN

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

#### **EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

EROSKIk 65 frankizia inauguratu zituen 2023an. Guztira, 14 milioi euro inbertitu ditugu, eta 360 lanpostu sorrarazi. Hedapen horren bitartez eta denda propioen sarea eraldatuz, bultzada indartsua hartu du EROSKIren Zurekin eredu komertzialak, belaunaldi berriko dendak ezaugarritzen dituenak.

EROSKIk aurreko urteetako frankizien irekiera erritmoari eutsi dio. Gauzak horrela, 307 inaugurazio baino gehiago egin ditu joan deneko bost urtean, eta urtea 628 supermerkatu frankiziatu baino gehiagorekin bukatu du. Hala, jarraitzen du frankizien sarea hedatzen, fokua lurralde hauetan ipinia duelarik datozen urteetarako: Katalunia, EAE, Andaluzia, Madril, Gaztela-Mantxa, Extremadura eta Levante. 2024ko ekitaldian, EROSKIren asmoa da 57 frankizia inauguratzea.

### **Sariketa ospetsuetan saritua**

EROSKIk 2023an Frankiziatzaile Onenaren Saria jaso zuen elikaduraren kategorian, Frankiziatzaileen Espainiako Elkarteak emanik. Sari horrek balioan jartzen du frankizia hartzaileek jasotzen duten babesa eta aholkularitza. EROSKIk frankiziei ematen dien balio bereizle horiek sarearen bidez eta marketin plan sendo batez lortu ditu, baita, azken buruan, frankizia sarearen kudeaketa bikainari esker ere.

Horretaz gainera, Frankiziarik Onenaren saria jaso zuen Supermerkatu Frankizien kategorian 2023-2024ko Urteko Merkataritza sarietan. Kontsumitzaileen sariketa hori Espainiako handiena da, eta *retail*-aren sektoreko merkatu azterketarik handienetako bat. Kontsumitzaileek hautatzen dituzte sarituak.

### **Lankidetzaren hitzarmenak**

Kooperatibak lehengo lankidetzaren hitzarmenari eusten dio Enpresaburu Gazteen Elkartearen Espainiako Konfederazioarekin (CEAJE), enpresari gazteen eta autonomoen

---

#### **EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
PATRICIA MARTÍN SANCHIDRIÁN

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

#### **EROSKI – PRENTSA BULEGOA**

##### **CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)



ekintzailletza lagundu eta sustatzeko. Ekintzailetzarekin duen konpromisoa indartu ez ezik, EROSKIk autonomia erkidegoetako ekonomia garatzen lagundu nahi du.

---

**EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
PATRICIA MARTÍN SANCHIDRIÁN

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

**EROSKI – PRENTSA BULEGOA**  
**CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE ÍZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)